

LEHEN HEZKUNTZARAKO UNITATE DIDAKTIKOA

Nafarroako Parlamentua

Ikaslearen Lan-koaderno

José Ignacio Juanbeltz Martínez / Rubén Riancho Andrés



PARLAMENTO DE NAVARRA
NAFARROAKO PARLAMENTUA

«DEMOKRÀZIA DA
GOBERNU-SISTEMA BAT
NON NORBAITEK ATEA
JOTZEN BADU GOIZEKO
SEIETAN BADARIZUN
ESNE-SALTZAILEA DELA»

WINSTON CHURCHILL
ERRESUMA BATUKO LEHEN MINISTROA (1940-45, 1951-55)

Izenburua Nafarroako Parlamentua. Ikaslearen Lan-koaderno
Lehen Hezkuntzarako Unitate Didaktikoa

Egileak José Ignacio Juanbeltz Martínez eta Rubén Riancho Andrés

Itzulpena Ander Arana Bareño, Xabier Aristegieta Okiñena, Ainhoa Irazustabarrena Barriola,
Mikel Iriarte Zilbeti eta Ander Irizar Apaolaza

Argitalpena Nafarroako Parlamentua,
Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren laguntzarekin

Diseinua KEN

Aurkibidea

Aurkezpena **7**

1. Aurretiko ideiak **11**

2. Non dago Nafarroako Parlamentua? **19**

3. Nork osatzen du Nafarroako Parlamentua? **29**

4. Zertan egiten du lan Nafarroako Parlamentuak? **37**

5. Legegintza-eginkizuna **45**

6. Boterea kontrolatzeko eginkizuna **53**

7. Eginkizun ekonomiko-finantzarioa **61**

8. Itxiera-mapa **69**

9. Ebaluazioa **71**

10. Autoebaluazioa. Koebaluazioa **75**

Aurkezpena

Unitate didaktiko hau prestatu dugunean, gure asmoa izan da zuri laguntzea gizartean pixka bat hobeto integratzen eta bizitzen. Horretarako, honako eduki hauek landuko ditugu:

1. Komunikazioa

Unitate honen helburu nagusietako bat da zuk zeuk dossier bat egitea, eta bertan Nafarroako Parlamentuari buruzko lan bat jasotzea. Helburu hori lortzeko, informazioa iturri ezberdinetatik (egunkariak, adituak, internet, liburuak, irakasleak...) irakurri edo entzun beharko duzu, askotariko argudioak erabiliz proposamenak defendatu, parlamentariak egiten duten bezalaxe, eta ongi egindako lan bat idatzi beharko duzu, ikasi dituzun gauzetako batzuen berri zure ikaskideei emateko.

2. Teknologia berriak erabiltzea eta informazioa tratatzea.

Gauza bat proposatzen dizugu: ordenagailua erabiltzea lan hori egiteko. Dena den, lana modu tradizionalagoetan ere egin ahalko duzu, hala nola boligrafoz idatziz. Baina, betiere, zenbait informazio internetetik eta beste iturri batzuetatik atera beharko duzu. Horrez gain, eskatzen zaizun informazioa ematen dizutenean edo bilatu eta aurkitzen duzunean, egiaztatu, antolatu eta sailkatu egin beharko duzu, behar bezala prestatuta egon dadin, eta modu egokian aurkeztu beharko duzu.

3. Herritarra izan... eta historia ezagutu.

Gure gaur egungo gizartearen eta iraganeko gizartearen arteko desberdintasuna da gure gizartearen herritarrez osatuta dagoela. Eskubideak eta betebeharrak dauzkagu. Dauzkagun eskubide garrantzitsuenen artean dago gure gizarteko arauak eta legeak egiten dituzten pertsonak hautatu ahal izatea, bai eta Gobernuaren osatzen duten pertsonak ere. Parte hartu ahal izateko, hautatu ahal izateko, jakin egin behar da. Herritar izateak esan nahi du jakitea nori eman ahal zaion botoa, noiz, zergatik, zertarako, Nafarroako Parlamentua zer den, non dagoen, zertarako balio duen, nola funtzionatzen duen... Unitate honetan ikasten ahaleginduko gara zer egin behar dugun gure ordezkariak modu arduratsuan hautatzeko, eta agerian utziko dugu zer-nolako lotura dagoen ikasitakoaren eta errealitatearen artean.

Gauzak ez dira besterik gabe sortzen. Pertsonak ere ez. Guk guztiok daukagu nork bere historia, luzeagoa edo laburragoa, gure ekintzetako batzuk esplikatzeko dituenak. Nafarroako Parlamentuak ere bere historia dauka. Eta historia hori erkidego honetan bizi diren pertsona guztien parte da, edo izan da, bai eta demokrazia hasi zen momentuaren parte

ere, eta hauteskundeena, eta iraganeko arazoak konpondu direneko moduarena, eta buruzagi politikoena...

4. Nork bere kabuz ikastea eta ekimenak abian jartzea

Ariketa komunak eginen ditugu, eta hautazko beste batzuk ere planteatuko ditugu, zuk ere zure ekimenak garatu ahal izan ditzazun: Nafarroako Parlamentuarekin eta parlamentariekin konektatzeko, bisita birtualak egiteko, informazioa bilatzeko eta emandako orientabideetan oinarriturik ariketak egiteko, Parlamentuko zenbait egoera antzezteko eta abar.

Hitz gutxitan esanda, Nafarroako Parlamentuaren nondik norakoak ikasiz, bizi zaren erkidegoa hobeto ezagutzea lortuko duzu, eta jakinen duzu dauzkagun problema batzuk konpontzen saiatzeko erabakiak nola hartzen diren.

Zure lan-koadernoari hasiera emateko, lehenbizi **azala** eginen duzu. Zure lehenengo egitekoa izanen da. Saia zaitez erakargarria eta originala egiten eta ongi osatuta egon dadin. Baliabide informatikoak erabil itzazu. Maketa honetan ikusiko duzun bezala, honakoak eduki beharko ditu:

**Zure lan-koaderno
nola itxuratu**

- **izenburu** bat.
- **irudi** sendo bat, arreta deituko duena, balio demokratikoekin loturiko gai-
ren bati buruzkoa (bizikidetasuna, parte-hartzea...).
- **zure datu** guztiak.

Izenburua

irudia

Izena:

Arloa:

Maila:

Ikastetxea:

Irakaslea:

Azala egin ondoren

Bigarrenik, beste orri batean, lanarekin lortu nahi dituzun helburuak idatziko dituzu.

Esate baterako:

ZER LANDUKO DUGU?

○ Zer ikasiko dut Nafarroako Parlamentuari buruz?

○

○

○


○

EZ AHAZTU

Zure irakaslearen laguntzarekin, bisita ezazu Nafarroako Parlamentuaren Ikasgela Birtuala: www.parlamentodenavarra.es/ikasgelabirtuala

- begira ezazu nola funtzionatzen duen
- zein informazio ematen dizkizun
- lan on bat egiteko eskaintzen dituen aukerak.

1. AURRETIKO IDEIAK



1. Testu hautatua

Nafarroako Errege-Erreginen Kronika

On Karlos Vianako printzeak Nafarroako errege-erreginei buruz 1454. urte aldera idatzitako kronikan, Nafarroaren historiari buruzko ikuspegi «ofiziala» eskaintzen da, ardatz gisa Nafarroako Erresumako errege-erreginak hartuz. Egilea, Vianako printzea, Nafarroako koroaren oinordeko zen, eta narrazioan justifikatu egiten du bere aurretik aritu ziren errege-erreginek egindako lana.

Testu honetan Vianako printzeak kontatzen du nola koroatzen ziren Nafarroako errege-erreginak, Nafarroako Foru Orokorrean xedatuta zegoenari jarraituz: errituak eta zin-egitea. Koroatua zenez geroztik, erregeak botereari eusten zion hil arte; eta une horretan, hain zuzen, eskuratzen zuen erregetza bere oinordekoak.

Honako hau da nafarren eta aragoiarren Foru Orokorreko lehen kapitulua:

«Guk, Nafarroa eta Aragoiko hiribildu onetako jaun handi, zaldun, infantzoi eta gizonok, anaitasun eta kidetasun zintzoari betidanik eutsi izanik, foru bidez xedatzen dugu, lehenengoz, errege-jasoketa betiko egitea.

Eta ezein errege ez dakigun gaiztoa gerta, zeren kontseiluak —hots, herriak— jasotzen baitu eta daukaguna eta mairuengandik lortzen duguna ematen baitiogu, etor bekigu, guk bera jaso aurretik, gurutzearen eta Ebanjelio Santuen gainean zin

[Goian] **Nafarroako Gorteen Bilkuran Erregea tronuratzea**
Nafarroako Foru Orokorrak Nafarroako erregea koroatzeko prozedura zehazten zuen. Erregeak zin egiten zuen nafarren foruak errespetatuko zituela, eta jarraian nobleek eta jaun handiek erregea ezkutu baten gainean jaso eta errege izendatzen zuten.

egitera gure eskubideei begiramena izanen diela eta gure foruak betiere hobetuko dituela, eta ez kaltetu, eta lurralde bakoitzeko indarrak deseginen dituela eta bakoitzeko lurra bertako gizonekin, zeinak baitira jaun handi, zaldun eta infanzoiak eta hiribildu onetako gizonak, elkarbanatuko dituela, eta ez beste lurraldetako arrotzekin.

Eta menturaz gertatuko balitz erregea beste lurralde bateko gizona izatea, edo toki arrotzekoa, edo mintzaira arrotzekoa, orduan ez beza berarekin ekar beste lurralde batetik adiskidantzazko edo zerbitzupeko bost gizon arrotz baino gehiagorik.

Eta inoiz ez beza ukan ezein erregek botererik jatorriz bere erresumakoak diren jaun handien kontseilurik gabe gorterik egiteko, ez eta beste errege edo erregina batekin bake nahiz meniarik egiteko ere; eta ez beza bestelako egintza loriatsurik ez eta erresumaren hertsapenezkorik ere egin, hamabi jaun handiren edo lurreko hamabi gizon zaharrenetako eta jakintsuenetakoen kontseilurik ukan gabe.

Eta eduki beza erregek zigilua bere manamenduetarako eta zinpeko moneta bere bizitzaldirako, eta errege-alfereza, eta nagusi-ikurra.

Eta egin bedi errege-jasoaldia Erromako aulkian, edo artzapezpiku- nahiz apezpiku-aulkian, eta gauzez ernai altxata egon bedi, eta elizan meza entzun beza, eta purpura eskaini, eta bere txanponetatik halaber; eta gero komulga beza eta, jaikitzean, bere ezku-tu gainera igota, jaso bezate jaun handiek, horrekin batera hiru aldiz oiheru eginik: real, real, real! eta orduan jaulki bitza bere txanponak herritarren gain, ehun sueldora arte. Eta haren gain beste inork aginpiderik ez duela erakustearren, berak bere gerrian jar beza ezpata, gurutzea bailitzan, eta egun horretan ez da beste inor zaldun egin izanen.

Eta hamabi jaun handi edo jakintsuek erregeri gurutzearen eta Ebanjelio Santuen gainean zin egin behar diote haren gorputza eta lurra eta herria zainduko dutela, eta zintzoki lagunduko diotela foruei eusten; eta eskuan muin eman behar diote.

Eta gauza publikoaren ongizateari buruzko beste kapitulu batzuk xedatu zituzten, aipaturiko foruan zabalago jasota ageri denez.»

Vianako printzea: *Nafarroako errege-erreginei buruz Vianako printzeak eginiko kronika*. DN Iruña, 2002.



Vianako Printzea

Vianako printzea izan zen Karlos III.a Prestua erregeak ezarritako titulu bat, Nafarroako koroaren oinordekoaren bereizgarri gisa. Vianako printzea ez zen iritsi Nafarroako errege izatera.



Nafarroako Foru Orokorra

Nafarroako foruen idatzizko lehenengo bertsioa XIII. mendekoa da. Foruek arautzen zituzten, besteak beste, erregea koroatzeko prozedura, errege-oinordekotza, erregeak zeuzkan mugak, prozesu-bermeetarako zigorrak, nafarren betebeharrak militarrik, gerra nahiz bakea egiteko moduak...



1. Ariketak

Ikasleek, talde handi batean bildurik, testu horri buruzko solasaldi bati ekinen diote, honako galdera hauetan edo beste batzuetan oinarriturik:

Testua hitzez hitz ulertzeko:

- Testuan esaten da: «...etor bekigu, guk bera jaso aurretik, gurutzearen eta Ebanjelio Santuen gainean zin egitera gure eskubideei begiramena izanen diela eta gure foruak betiere hobetuko dituela, eta ez kaltetu...». Zer esan nahi dute hitz horiek?
- Azal ezazu, zeure hitzetan, honako pasarte hau zertaz ari den: «Eta hamabi jaun handi edo jakintsuek erregeri gurutzearen eta Ebanjelio Santuen gainean zin egin behar diote haren gorputza eta lurra eta herria zainduko dutela, eta zintzoki lagunduko diotela foruei eusten; eta eskuan muin eman behar diote.»

Testuaren ulermenean sakontzearen:


- Nork eskatzen zion, Nafarroako errege izanen zenari, foruak hobetzeko eta ez kaltetzeko? Nafarroako biztanleriaren zer parte (ehunekoetan adierazia) uste duzu zegoela sartuta kargudun-talde horretan? Populazioaren gehiengoa? Gutxiengoa?
- Nolakoa zen Nafarroako erregea izendatzeko zeremonia? Testuan zergatik esaten da erregea jasotzen zutela haren errege-izendapena gauzatutzat emateko? Nork jasotzen zuen erregea? Zeren gainean jasotzen zuten? Zein litzateke ekintza horren esanahia?
- Nolakoa da Nafarroan gaur egun Gobernuko lehendakariaren izendapena? Nork egiten du? Nola? Betiko al da?
- Nafarroako erregearen izendapena demokratikoa al zen? Zergatik? Noiz da demokratikoa izendapen bat?
- Jaun handiek zenbait konturi buruzko aholkua eman behar zioten erregeari. Teorian, haien adostasunik gabe, erregeak ezin zituen zenbait gauza egin. Zein dira gauza horiek? Gaur egun nork kontrolatzen du Gobernuak Nafarroan duen boterea? Nola egiten da kontrol hori egunez egun?
- Nafarroako erregeak mendekoak zeuzkan. Zer esan nahi du hitz horrek? Nafarroan, gaur egun, pertsonak zer dira: mendekoak ala herritarrak? Zer esan nahi du herritar izateak? Zer esan nahi du mendeko izateak? Demokrazia batean egon al daiteke mendekorik? Zergatik?

1.1. Testu hautatua

Piano-jotzailea

Britainiarren agintepean zegoen Afrikako herrialde batean, gobernadore nagusiak hotsandiko afari bat eskaini zuen, piano-jotzaile beltz ospetsu bati gorazarre egiteko.

Afariaren amaieran, gobernadoreak piano-jotzaileari eskatu zion gogoko zuen konposizioen bat jo zezala, festari ohore egiteko. Musikariak apaltasunez baiezkua eman zion, eta pianoaren aurrean eseri zen. Guztien txundigarri, inolako melodiarik eta erritmorik gabeko nota disonanteak entzuten hasi ziren; kontzertu negargarri bat ematen ari zen, berarengandik espero zenarekin batere zerikusirik ez zeukana. Han bildutakoak urduritzen hasi ziren, baina musikariak bere ingurukoei jaramonik egin gabe pianoa jotzen segitzen zuen, belarrietan min ematen zuen notanahaspila batekin areto hura betez. Pieza bat bukatu zuen eta, entzuleak zur eta lur utziz, aurrekoaren tankera bereko bigarren bati ekin zion. Halakorik ez zegoen entzuterik. Gobernadorea lotsaren lotsaz eta jaikitzeke zorian zegoen, gainerakoak



Tekla zuriak abiarazten dituzten noten osagarri eta indargarri dira tekla beltzak. Ez du teklen koloreak soinua egiten, baizik eta haien erabilera harmoniatsuak.

bezala. Baina, halako batean, musikariak piano hartatik bertatik melodia zoragarri bat irtenarazi zuen, jende guztia liluratu zuena. Musikaren xarmak entzule guztiak bereganatu zituen, eta piano-jotzailea bertaratutakoak agurtzeko jaiki zenean, erai-kin osoaren luze-zabalean hedatu zen txalo-zaparradaren burrunba. Orduan, musikariak hitza hartu eta esan zuen:

«—Jaun-andreok: hasieran, konturatu naiz estu eta larri ibili zaretela eskaintzen ari nintzaizuen musika jasateko. Badakit kakofonia ikaragarri bat izan dela, eta ziur aski pentsatzen ari zinetela adarra jotzen ari nintzaizuela. Baina ez dut asmorik izan inolako bromarik egiteko. Begira, pianoan tekla zuriak daude, Europako biztanleen antzekoak, eta tekla beltzak, Afrikakoen antzekoak. Pianoa soil-soilik tekla zuriak erabiliz jotzen badugu, musika lazgarria aterako diogu, eta gauza bera gertatuko da tekla beltzak bakarrik erabiliz gero. Batzuk eta besteak elkarri egokituz modu arte-tsuan joz gero, ordea, musika miragarria egin daiteke. Ezinezkoa da elkarrekin lan baliagarriarik egitea, beltzak eta zuriak ez badira elkarrekin lankidetzan aritzen. Elkar ulertzea, batak eta besteak elkar hartzea, ezinbesteko baldintzak dira guztion aberasgarri gertatuko den obra bat sortzeko».

1.1. Ariketak

1. XX. mendearen erdia baino denbora luzeagoz, ia Afrika guztia Europako herrialdeen «jabetzan» egon zen (Frantzia, Espainia, Ingalaterra, Portugal...). Ingalaterrak koloniak zeuzkan Afrikan, Egiptotik Hegoafrikarainoko distantzia ia guztia hartzen zutenak. Begira ezazu mapa bat eta ipini erregela bat Egiptotik Hegoafrikaraino. Aipa itzazu erregelak «ukitzen» dituen herrialdeak. Ia-ia horiek guztiak Ingalaterraren koloniak ziren. Ez ziren herrialde burujabeak, gaur egun ez bezala.

2. Garai hartako europar batzuek justifikatu egiten zuten Afrika beren menpean edukitzea, zuriak beltzen gainetik zeudela baieztatuz. Zientziaren Aurrerabiderako Amerikako Elkarrekin dio «arrazaren kontzeptuak zientifiko izateari utzi» diola. Zergatik? Ba al dakizu kolonialismoa zer den?

3. Zure ustez, zilegi al da demokrazia batean zenbait jendek bere larruazalaren kolorearengatik botorik ezin ematea? Zergatik? Bozkatzerakoan zilegi al da arraza, sexu, erlijio eta abarren arabera bereizketa egitea? Zertan oinarritzen da demokrazia bat? Zure ustez, boto batzuek beste batzuek baino balio handiagoa al dute?

4. Irakurri berri duzun testuko mezu nagusia zein esalditan jasota dagoela iruditzen zaizu? Zein da ideia nagusia?

5. Ba al dakizu aurreiritzi bat zer den? Ba al daukazu aurreiritzirik zure inguruan bizi diren pertsoneri buruz? Nola gáinditu ahalko zenituzke aurreiritzi horiek? Bizikidetasunaren balioek biderik ematen al dute aurreiritzi horiek gáinditzeko?

6. Besteekiko konpromisoa hartu duen inor ezagutzen al duzu? Zertan gustatuko litzaizuke besteekin lankidetzan aritzea?

7. Iker ezazu nortzuk ziren behartsuekiko eta ahulenekiko konpromisoa hartu zuten pertsona hauek: Gandhi, Teresa Calcuttakoá eta Martin Luther King.

2. NON DAGO
NAFARROAKO
PARLAMENTUA?



2. Non dago Nafarroako Parlamentua?

Nafarroako Parlamentua Navas de Tolosa kalean dago, Iruñeko erdialdean. Sarasate pasealekuko muturretako batean dago; beste muturrean Nafarroako Jauregia dago, hots, Nafarroako Gobernuako lehendakariaren egoitza. Horrenbestez, bi erakundeak, Nafarroako Parlamentua eta Nafarroako Gobernua, Sarasate pasealekuaren bitartez elkarrekin lotuta daude. Pasealeku horretan aurkitzen da, halaber, Foruen Monumentua.

[Goian] **Nafarroako Parlamentuaren fatxada**
 Nafarroako Parlamentua adreilu gorritz eta hareharriz eraiki zen. Nafarroako Entzutegia, probintziako auzitegi nagusien egoitza, izateko diseinatu zen. 2002. urtean, eraikinaren fatxada errespetatu zuen zaharberritze sakon baten ondoren, Nafarroako Parlamentuaren egoitza bihurtu zen. Iruña hiri irekia zen jadanik. Bere harresi lodietako batzuk eraitsi egin ziren, hiria hedatu ahal izateko, baina beste batzuk gaur egun zutik daude oraindik.

[Ondoan] **Sarasate Pasealekua**





Iruñeko planoaren zati bat
 Nafarroako Parlamentuaren
 egoitza 1892ko eraikin bat da;
 hain zuzen ere, Iruñeak izan
 zuen lehenbiziko hiri-hedatzea,
 Lehen Zabalgunea deritzona,
 egin zenekoa. Garai hartan,
 Iruña hiri txikia zen, bere harresi
 zahar eta lodien mugapean
 itotzeaz zegoena. Eraikin berria
 harresien barrualdean eraiki
 zen, Ziudadelaren aldamenean.

2. Ariketak

1. Argazkian identifika eta koka itzazu honako leku bereizgarri hauek: Gazteluko Plaza, Nafarroako Gobernuko lehendakaritzaren egoitza, Foruen Monumentua, Nafarroako Parlamentuaren egoitza, Baluarte, Ziudadela, Iruñeko alde zaharra. Koka itzazu argazkian iparraldea, hegoaldea, ekialdea eta mendebaldea. Zer da hiri bat? Ba al da kalez, etxez eta jendez osaturiko multzo bat baino gehiago ere? Inguruko herrietako biztanleak erakartzen dituen zer zerbitzu eskaintzen ditu?

-
2. Planoan adieraz ezazu Nafarroako Parlamenturaino iristeko egin duzun ibilbidea, bai eta bertatik irten ondokoa ere. Airetiko argazkia planoarekin alderatuz, aurki itzazu argazkiko eraikin historiko-politiko nagusiak eta, halaber, kaleak.

-
3. Informa zaitetz: noiz egin zen Iruñeko lehen zabalgunea, zer eraikin altxa ziren, eta non zeuden kokatuak? Planoz hornituriko informazioa aurki dezakezu honako webguneetan:

http://es.wikipedia.org/wiki/Primer_Ensanche_de_Pamplona


http://www.iesnavarrovilloslada.com/public/proyectos/comenius/pamplona.index_archivos/urbanismo.html

-
4. Egin itzazu lan-irtenaldiko koadernoan dauden gainerako ariketak.

2.1. Nolakoa da Nafarroako Parlamentua?


Nafarroako Parlamentuaren eraikina udal arkitekto Julián Arteagak egin zuen 1892an. Nafarroako Entzutegia hartzeko egin zuen, hain zuzen ere Probintziako auzitegi garrantzitsuenen egoitza. Lehenengo zabalgunean egin zen eraikin zibil ofizial bakarra izan zen. Hiru solairu dituen eraikina da, leiho handiekin. Lursail irregular batean eraikia dago, eta, hori dela-eta, adreilu gorrizko eta Tafallako harri okrezko fatxadak tamaina desberdinetakoak dira. 2002. urtean, eraikinaren fatxada errespetatuz egini-ko zaharberritze sakon baten ondoren, Nafarroako Parlamentuaren egoitza bihurtu zen. Iruña hiri irekia zen jadanik. Bere harresi lodietako batzuk eraitsi egin ziren, hiria hedatu ahal izateko, baina beste batzuk gaur egun zutik daude oraindik.

Nafarroako Parlamentuaren eraikinaren oinplanoak triangulu-forma dauka. Hiru solairuko eraikina da; horiez gain, teilatupeko ganbera eta –behealdean– sotoa dauka. Garaje bat ere badauka. Eraikinaren erdigunea hutsik zegoen, eta patio zentral bat osatzen zuen, gaur egun Osoko Bilkuren aretoa eta atalondoa (argia pasatzen uzten duen kristalezko sabai batez estalita) betetzen dutena.




Erdisotoko solairua

Solairu honetako gunerik garrantzitsuenak dira eraikinaren sarrera nagusia eta Osoko Bilkuren aretoa. Sarrerak Navas de Tolosa kalera ematen du. Foruzaingoak zaintzen du. Osoko Bilkuren aretoan esertzen dira Nafarroako Parlamentua osatzen duten 50 parlamentariak. Legeak onesteko nahiz Nafarroako Gobernuaren ekintzak kontrolatzeko biltzen diren tokia da. Osoko Bilkura Nafarroaren ordezkariak politikoaren erakusgarria da, hantxe bilduta baitaude nafarrek hauteskundeetan hautatu dituzten alderdi politiko ezberdinetako pertsona guztiak.



Beheko solairua


Gunerik garrantzitsuenak dira liburutegia, Nafarroako Gobernuaren aretoa, zeinean bildu edo egon ahal baitira, Nafarroako Parlamentura etortzen direnean, Gobernu kideak; erakunde-aretoa —bertan egiten dira ekitaldi ofizialak, harrera egiten zaie gonbidatuei, sari-banaketak egiten dira, erakunde-ekitaldiak antolatzen dira...—, eta erabilera anitzeko aretoa, prentsa-areto ere deitu ohi zaiona, zeina erabiltzen baita komunikabideekin prentsaurrekoak egiteko, hitzaldiak antolatzeko eta abar.



Solairu honetako gela nagusiak dira Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren bulegoa, Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren aretoa eta zerbitzu juridikoen bulegoak. Nafarroako Parlamentuko lehendakariak lan egiten du solairu honetan daukan bulegoan, bere kabinetearen eta, oro har, zerbitzu juridikoen laguntzarekin. Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren aretoa da Nafarroako Parlamentuaren zuzendaritza-lanak egiten dituzten pertsonak biltzen direneko tokia. Mahaiak Osoko Bilkuretako zuzendaritza-lanak egiten ditu, eta Nafarroako Parlamentuko lehendakaria da (zeina Mahaiko lehendakaria ere bai baita) hitza ematen edo kentzen duena eta haren iraupena kontrolatzen duena.

Lehen solairua


Eledunen Batzarra parlamentu-talde bakoitzeko ordezkari banak osatua dago. Bilkuraldi arruntetik kanpo, Batzorde Iraunkorra eratzen da, eta Nafarroako Parlamentu osoaren ordezkari-tza bereganatzen du. Larrialdietan, egokitzat jotzen dituen erabakiak hartzen ditu.



Bigarren solairua. Bigarren solairuan daude parlamentu-taldeen eskueran Nafarroako Parlamentuak jartzen dituen zenbait areto. Horiez gain, bi batzorde areto daude. Talde edo alderdi politiko berekoak diren parlamentariak osatzen dituzte parlamentu-taldek. Nafarroako Parlamentuan aztertzen diren arazoetan parlamentari horiek ideia berberak defendatzen dituzte. Parlamentu-talde bakoitzak bulego bat edo batzuk dauka, bertako parlamentariak bilerak egin eta Nafarroako Parlamentuan egin behar dituzten mintzaldiak elkarrekin batera prestatu ahal izateko.

Bigarren solairua

Batzorde aretoetan talde politiko ezberdinetako parlamentariak biltzen dira, Nafarroako Parlamentuan aurkezten diren lege-proiektuak aztertzeko. Proiektua Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurara iritsi eta, kasua bada, lege bihurtu aurretik, eztabaidatu, argudioak eta arrazionamenduak eman, aldaketak proposatu, adostasuna edo aurkakotasuna adierazi, eta abar egiten dute.





Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuren aretoa
Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuren aretoaren oinplanoa biribildua da, eta horrek ahalbidetzen du parlamentariak elkar ikusi ahal izatea afera ezberdinei buruz mintzatzen direnean. Beheko lerroan, eserleku gorriek osaturikoan, Nafarroako Gobernuo kideak esertzen dira. Gobernuo kideek Nafarroako Parlamentuaren bilkuretan

bozkatu ahal dute parlamentari ere baldin badira. Osoko Bilkuren aretoko burutzaren aurrean kokatuta dago mintzatokia. Nafarroako Parlamentuko lehendakaria da Osoko Bilkuren aretoko Mahaiaren buru. Mintzatokia da unean-unean hizpidea duen parlamentariak bere hitzaldia egiteko tokia.

Batzorde aretoa
Nafarroako Parlamentuan 15 bat batzorde ezberdin daude, haietako bakoitza gai zehatz batean espezializatua: hezkuntza; osasuna; ekonomia eta ogasuna; etxebizitza; berrikuntza, enpresa eta enplegua, eta abar. Batzorde horietan, parlamentariak aztertu egiten dituzte beren espezializazio —esparrukoak diren lege-proiektu edo—

proposamenak. Orobat, Gobernuo kideen agerraldia eskatzen dute, gobernuo kideen lanari buruz informatzeko eta lan horren kritika edo harekiko babesa eta abar adierazteko.



2.1. Ariketak

1. Bila itzazu argazki batzuk (bai barnealdekoak, bai kanpoaldekoak), Nafarroako Parlamentua nolakoa den erakusten dutenak. Horretarako, interneteko bilatzaile batean «Nafarroako Parlamentua» (edo bestelako bilaketaren bat) idatz ezazu eta «Irudiak» sakatu. Saia zaitetz argazki bakoitzerako argazki-oin bat jartzen.

-
2. Gehitu itzazu Nafarroako Parlamentuan egin dituzun argazkiak (baldin eta lan-irtenaldia egin baduzu), bai eta egin ahal izan dituzun beste marrazki eta krokisak ere. Gogoan izan ezazu irudiei izenburua eta, beharrezkoa balitz, argazki-oina ere ipini behar diezula.

3. NORK OSATZEN
DU NAFARROAKO
PARLAMENTUA?

3. Nork osatzen du Nafarroako Parlamentua?

Gehienez ere lau urtean behin, Nafarroako Parlamentua berritzeko hauteskundeak deitu eta egiten dira. Nafarroan erroldatuta dauden 18 urteko adinaz gorako pertsona guztiak daukate boto-eskubidea. Zerrendarik bozkatuenetako 50 hautagaiak hautatzen dira. Horrenbestez, parlamentariak Nafarroako herritar guztiak ordezkatzeko dituzte, zeren eta, haietako edonor hautatua gertatzeko, boto askoren babesa behar baitu.

Edozein pertsona aurkez daiteke foru hauteskundeetara. Nolanahi ere, ia inor ez da bere kabuz aurkezten. Alderdi politiko edo hauteskunde-koalizioetako kide gisa taldekatuta aurkeztu ohi dira. Alderdi politiko bat osatzen duten pertsonak ideia berberak defendatzen dituzte, eta haien jomuga da boterea eskuratzea, ideia horiek gauzatzeko aldera. Hauteskunde-koalizio bat osatzen dute bi alderdik edo gehiagok; alderdi horiek bat egiten dute hitzarmen bat dela medio, hauteskundeak irabazteko asmoz. Alderdi edo koalizio bakoitzak zerrenda bana aurkezten du, 50 hautagaien eta ordezkoen izenak jasotzen dituena.

Nafarrek alderdi bat edo bestea hautatu ahal izan dezaten, eta alderdi haietako bakoitzak zer egitea proposatzen duen jakiteko informazioa eskuratu dezaten, hauteskunde-kanpainak egiten dira. Hauteskunde-kanpainak hamabost egun irauten dute, eta denbora horretan hautagaiak herriz herri eta hiriz hiri joan ohi dira, hautatuak izanez gero zer egingen duten adierazteko. Egun horietan zehar, prentsan, irratian, telebistan, interneten, kaleetan (kartelen bidez, autoetan paratutako mikrofonoen eta abarren bidez) eta zenbait lokaletan (bileren edo mitinen bidez) hautagaitza bakoitzari buruzko informazioa eskaintzen da. Boto-emaleek, horrela, aukera izaten dute hautagaitza ezberdinei buruzko iritzia elkarrekin kontrajartzeko eta, hautestontzietara joateko unea iritsitakoan, nahi duten hautagaitzaren aldeko botoa emateko.

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuren aretoa hutsik
Parlamentariak eserlekuak biribil bat osatuz antolatuta daude. Horrela, aietasunez ikus eta entzun diezaiokete elkarri. Nafarroako Parlamentuko lehendakariak bilkuren zuzendaritza-lana egin eta hitza eman edo kentzen du. Bere ondoan bi lehendakariorde eta bi idazkari esertzen dira. Parlamentari bat Osoko Bilkurari zuzentzen zaionean, Nafarroako Parlamentuko lehendakari-tzahaiaren aurrean kokaturiko mintzatoki batera igotzen da.



Nafarroako Foru Komunitateko hauteskunde-emaitzak

| Hautagaitza | 1. legegintz. 2. legegintz. 3. legegintz. 4. legegintz. 5. legegintz. 6. legegintz. 7. legegintz. 8. legegintz. 9. legegintz. | | | | | | | | | |
|---|---|------|------|------|------|------|------|------|------|------|
| | 1979 | 1983 | 1987 | 1991 | 1995 | 1999 | 2003 | 2007 | 2011 | 2015 |
| UCD Unión de Centro Democrático | 20 | | | | | | | | | |
| CDS Centro Democrático y Social | | | 4 | | | | | | | |
| PSN-PSOE Partido Socialista Obrero Español | 15 | 20 | 15 | 19 | 11 | 11 | 11 | 12 | 9 | 7 |
| UPN Unión del Pueblo Navarro | 13 | 13 | 14 | 20 | 17 | 22 | 23 | 22 | 19 | 15 |
| AP / PP Alianza Popular / Coalición Popular Partido Popular | | 8 | 2 | | | | | | 4 | 2 |
| PDF-PDP y PL (UDF) Unión Demócrata Foral | | | 3 | | | | | | | |
| HB / EH Herri Batasuna / Euskal Herritarrok | 9 | 6 | 7 | 6 | 5 | 8 | | | | |
| CDN Convergencia de Demócratas de Navarra | | | | | 10 | 3 | 4 | 2 | 0 | |
| EKA Partido Carlista | 1 | | | | | | | | | |
| EA Eusko Alkartasuna | | | 4 | 3 | 2 | | | | | |
| UNAI Unión Navarra de Izquierdas | 1 | | | | | | | | | |
| EE Euskadiko Ezkerra | | | 1 | | | | | | | |
| EAJ-PNV Eusko Alderdi Jeltzalea- Partido Nacionalista Vasco | | 3 | | | | | | | | |
| Nacionalistas Vascos | 3 | | | | | | | | | |
| EA-PNV | | | | | | 3 | 4 | | | |
| Nafarroa Bai | | | | | | | | 12 | 8 | |
| Aralar | | | | | | | 4 | | | |
| IU / IUN-NEB Izquierda Unida / Ezker Batua | | | | 2 | 5 | 3 | 4 | 2 | | |
| Izquierda-Ezkerra | | | | | | | | | 3 | 2 |
| Bildu-Nafarroa | | | | | | | | | 7 | |
| EH Bildu | | | | | | | | | | 8 |
| Geroa Bai | | | | | | | | | | 9 |
| Podemos | | | | | | | | | | 7 |
| Bestelakoak | 8 | | | | | | | | | |
| Guztira | 70 | 50 | 50 | 50 | 50 | 50 | 50 | 50 | 50 | 50 |



Hauteskunde-kanpaina bateko mahai-ingurua

Hauteskunde-kanpainen, hautagaien arteko eztabaidak eta mahai-inguruak antolatzen dira. Horrela, herritarrek aukera izaten dute haiei buruzko iritzia eratu eta horren arabera bozkatzeko.

Botoa emateko, 18 urtetik gorako pertsonak joan behar dute beren etxetik hurbil izen emanda daudeneko hauteslekura, alderdi baten eta bere hautagaien izena idatzirik duen boto-txartel bat aukeratu, gutunazal batean sartu eta, azkenik, beren botoa hautestontzi batean sartu.

Bozketak zenbait baldintza bete behar ditu: **askea** da (hau da, zeuk aukeratutakoari ematen diozu zeure botoa); **zuzenekoa** (inork ez du beste inoren izenean botoa ematen; nork bere izenean bozkatzen du); **isilpekoa** (inork ez daki nori eman diozun botoa, ez baduzu zeuk esaten); unibertsala (18 urtez gorako guztiek bozkatzen dute) eta **aldizkakoa** (hautetsia ez dute betiko hautatzen, baizik eta epe baterako soilik). Hautesleku bakoitza hiru pertsonak osatzen dute, 18 urtez gorakoen artean zozketa bidez aukeratuak. Pertsona horiek hauteskunde-mahaia osatzen dute. Horiekin batera, alderdi politikoen ordezkari identifikatuak egon daitezke, zaindari, iruzurrik izan ez dadin. Bozketa bukatzean, hautestontzia ireki eta publikoki zenbatzen dira botoak. Emaitzak Hauteskunde Batzorde bati bidaltzen zaizkio.

Nafarroako Hauteskunde Batzordean biltzen dira Nafarroako hauteskunde-mahai guztietako datuak. Hauteskundeetara aurkeztu diren alderdi politiko edo koalizioen botoak zenbatzen dira eta, azkenik, zenbat eserleku edo parlamentari lortu dituzten kalkulatu da, alderdi bakoitzak lortu duen boto-kopuruaren arabera. Horrez gain, Hauteskunde Batzordeak jakinarazpen bat igortzen die hautagai hautatuei, horrekin Nafarroako Parlamentura joan eta ofizialki eskuratu dezaten lortu duten parlamentari-izaera frogatzen duen ziurtagiria.

Parlamentariak babes berezia daukate beren lana egin eta beren ideiak defendatzeko. Bortxaezintasun-babesa daukate Parlamentuko ekitaldietan adierazitako iritziei eta beren karguan jardutean emandako botoei dagokienez. Era berean, ezin dira atxilotuak izan beren hautaketaren indarraldian zehar, salbu eta ageri-ageriko delituan harrapatuak izan direnean.

3. Ariketak

1. Kopia itzazu azken bi hauteskundeetan Nafarroan parlamentu-ordezkaritza lortu duten alderdi politikoen inzialak edo siglak, eta haien esanahia esplika ezazu.

-
2. Jo ezazu Nafarroako Parlamentuaren webgunera (www.parlamentodenavarra.es), «Osaera eta organoak» atalean klikatu, kopia ezazu gaur egun Nafarroako Parlamentua osatzen duten parlamentarien zerrenda, eta sailka itzazu bakoitzaren alderdi politikoen arabera.

-
3. Talde txikian eztabaida ezazu:

- Zergatik ezin duten botorik eman 18 urtez beherakoek. Ezintasun horren aldeko hiru argudio eta aurkako beste hiru pentsa itzazu. Argudio horiek idatzi eta klasekideei esplikatu.
- Pentsa eta idatz itzazu talde ezberdinetako parlamentariei egin ahalko zenizkiekeen bizpahiru galdera, gaur egungo problemei buruz, gazteok dituzuen kezkei buruz... parlamentari horien artean dauden iritzi-desberdintasunak jakin ahal izateko.

3.1. Hauteskundeak Nafarroan

Nafarroan, Espainiako gainerako autonomia erkidegoetan bezalaxe, lau hauteskundemota ezberdin egiten dira:

- **Udal hauteskundeak.** Horietan, udalerrri bakoitzeko biztanleek beren herri edo hiriko bizitza antolatuko duten alkatea eta zinegotziak hautatzen dituzte. Herriek daukaten biztanle-kopuruaren arabera, zinegotzi kopurua handiagoa edo txikiagoa da.
- **Foru hauteskundeak.** Nafarroako Parlamentuko berrogeita hamar kideak hautatzen dira. Gainerako autonomia erkidegoek ere zeinek bere parlamentua hautatzen du.
- **Hauteskunde nazionalak.** Boto-eskubidea duten nafarrek parte hartzen dute Kongresuko kideen (diputatuak) eta Senatuko (senatariak) hautaketan. Bai Kongresuaren bai Senatuaren egoitza Madrilan dago. Hautatzen diren diputatuen kopurua gehienbat tokian tokiko biztanle kopuruaren baitan dago. Nafarroan bost diputatu eta lau senatari hautatzen dira. Baina, horrez gain, Nafarroako Parlamentuak beste senatari bat izendatzen du.
- **Europako hauteskundeak.** Europako Parlamentuaren parte izanen diren diputatuak hautatzen dira. Europako Parlamentuak egoitza Strasburgon dauka (Frantzia).

Etimologikoki, «demokrazia» hitzak esan nahi du herriaren (demos) gobernua (kratos). Horrenbestez, herrialde bat demokratiko egiten duena da beren agintariak bertako biztanleek hautatuak izatea, maiztasun jakin batekin; adibidez, lau urtean behin. Nafarroak baldintza horiek betetzen ditu. Gainera, giza eskubideak errespetatzen dira, eta bertako biztanleek betebeharrak berberak dituzte, kontuan izan gabe zein den beren posizio soziala edo zenbaterainokoa beren aberastasuna.

Herrialde demokratikoetako eskubideen artean nabarmentzekoak dira alde batetik bestera mugitzeko askatasuna; adierazpen-askatasuna; prentsa-askatasuna; elkartzeko askatasuna; gutxiengoen errespetua; arraza, sexu edo erlijioarengatik diskriminatua ez izateko eskubidea; alderdi politikoak sortzeko eskubidea; jabetza-eskubidea... Oinarrizko lege bat dago, 1978ko Konstituzioa, eskubide horiek jasotzen dituena. Horren bitartez, Espainiako eta autonomia erkidegoetako parlamentuek Estatuko nahiz erkidegoetako gobernuen ekintzak kontrolatzen eta herritarren interesak zaintzen dituzte.

Herritarren betebeharren artean, azpimarratzekoak dira legeak betetzea, zergak ordaintzea (eskuarki, norberaren dirusarreraren arabera) eta lagun hurkoa errespetatzea.



Demokraziaren ideia, gaur egun ulertzen den bezalaxe, hau da, pertsona bakoitzeko boto bat, zeinak ahalbidetzen baitu herrialde bateko biztanleek beren agintariak askatasunez eta aldiro hautatzea, «asmakizun» aski ahul eta berria da. Ez da munduko herrialde guztietara iritsi. Europako herrialde askoren historiako zenbait unetan, gobernua hauta zezaketenak soil-soilik ziren zergetan diru asko ordaintzen zuten pertsonak; hau da, aberatsenak. Halaber, zenbait estatutan, alderdi politiko bakar bat izan ezik, gainerako guztiak debekatuta daude; horrek esan nahi du alderdi horretakoak diren pertsonak beste inor ezin dela hauteskundera aurkeztu, eta, era berean, alderdi horretakoak direnak bakarrik izan daitezkeela hautatuak. Badaude munduan zenbait nazio, non emakumeek ezin duten botorik eman. Eta beste zenbait herrialdetan, agintariak indarra erabiliz eskuratu du boterea, estatu-kolpe baten bitartez. Kolpe horri aurka egiten diotenak atxilotu eta espetxeratu egiten dituzte.

Demokraziari eusteko, herritarren eskubideak errespetarazi behar dira, baina betebeharrak ere bai. Eskubideen artean, honakoa da garrantzitsua: pertsona bat, boto bat. Betebeharren artean, honakoa da garrantzitsua: legeak betetzea.



Espainiako autonomia erkidegoen mapa
Jarri erkidegoen eta haien hiriburuen izenak dagozkien tokietan.

Espanian 17 autonomia erkidego daude. Haietako bakoitzak oinarri du 1978ko Konstituzioa —zeinak aitortzen baitu Espainia osatzen duten nazionalitate eta herrialdeen autonomia-eskubidea— eta autonomia estatutua. Nafarroako autonomia estatutua Foru Hobetzearen Legea da, 1982koa.

3.1. Ariketak

1. Informa zaitetz eta honakoak erantzun:

- Zure herrian udal hauteskundeetan nor hautatu zuten alkate?
- Autonomi hauteskundeetan nor hautatu zuten zure erkidegoko lehendakari?
- Nor hautatu zuten diputatu (pertsone baten izena, gutxienez ere) Madrilgo Parlamenturako hauteskunde orokorretan?
- Europako Parlamenturako azken hauteskundeetan hautatua izan zen parlamentari europar baten izena esan ezazu.

2. Espainiako biztanleek 1978ko Konstituzioa onetsi zuteneko eguna jai-eguna da: zer egun da hori?

3. Honako hitzak defini itzazu zeure hitzak erabiliz, nahiz eta hiztegi batean bilatu edo zure ingurukoei galdetu:

- Demokrazia:
- Diktadura:
- Udal hauteskundeak:
- Foru hauteskundeak:

4. Aipa itzazu Nafarroako Foru Komunitatearekin muga daukaten autonomia erkidegoak.

5. Aipa itzazu Nafarroaren antzera probintzia bakarrez osaturikoak diren beste autonomia erkidegoak.

4. ZERTAN EGITEN
DU LAN NAJARROAKO
PARLAMENTUAK?

4. Zertan egiten du nafarroako Parlamentua?

Okindegi batean, lan batzuk beharrezkoak dira azkenean ogia lortu ahal izateko. Makineriaren laguntzaz, langileek irina, ura, legamia eta gatz pixka bat nahasten dituzte, nahasketa horrekin oreka egin eta arretaz lantzen dute, oreari forma egokia ematen diote, labean sartzen dute eta, ateratakoan, ogia prest dago jan ahal izateko.

Ogia prestatzearekin gertatzen den bezala, lan guztietarako nahitaezkoak dira pertsona batzuk eta bitarteko batzuk (lehengaiak, makineria eta abar), azkenean emaitza bat sortzeko, produktu bat ekoizteko.

Nafarroako Parlamentuan, parlamentariak dira lana egitearen ardura daukatenak. Lan hori egiteko erabiltzen dituzten bitartekoak dira Nafarroako Parlamentuaren eraikina eta horren edukia (ordenagailuak, gelak, Osoko Bilkuren aretoa...) eta bertan lan egiten duten edo Nafarroako Parlamentuarentzat lan egiten duten pertsonak, parlamentariak laguntzen dietenak. Gutxienez ere bi produktu ekoizten dituzte: alde batetik, legeak, Nafarroako herritar guztiek bete beharrekoak, eta bestetik, Nafarroako Gobernuak egindako lanaren kontrola.

Parlamentariak astelehenetik ostiralera lan egiten dute, urtariletik ekainera eta irailetik abendura. Nafarroako Parlamentuko Mahaia bost pertsonak osatua da, eta lan guztien zuzendaritzaz arduratzen da. Nafarroako Parlamentuko lehendakaria da mahai horren arduradun nagusia.

Parlamentariak taldeak osatzen dituzte, eta parlamentu-talde horietako kide dira alderdi politiko bateko nahiz hauteskondeetara elkarrekin aurkezturiko alderdien koalizio bateko kideak. Taldeek elehun bana daukate, zeinak taldea zuzendu eta taldearen izenean hitz egiten baitu.

Lege proiektuak edo lege proposamenak eztabaidatu eta aldatzeaz arduratzen dira batzordeak. Batzordeak dira gai ezberdinetan —etxebizitza, osasuna, ekonomia eta ogasuna, landa garapena eta ingurumena, eta abar— espezializaturiko organoak, non proportzionalki ordezkatuta baitaude parlamentu-talde guztiak. Lege-proposamen edo —proiektuaren testua eztabaidatu ondoren, Osoko Bilkurara pasatzen da, eta bertan onetsi edo baztertuko da. Gainera, Batzordeek Gobernuaren zeregina kontrolatzen dute, horretarako galderak, informazio-bilerak eta abar eginez. Helburu horrekin, Gobernuko kideei Parlamentura etor daitezen dei egiten diete.

Aitzina, Nafarroako Gorteek eginiko bozketetan erabiltako zilarrezko boto-kutzak





Nafarroako Parlamentuko bozketetarako koadro elektronikoa

Gaur egun, eta ohiz kanpoko kasuetan izan ezik, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurako botazioak bitarteko elektronikoa erabiliz egiten dira. Baina oraindik ere gordetzen dira antzinako Nafarroako Gorteetan parte hartzen zuten pertsonen bozkatzeko zuteneko zilarrezko boto-kutxak. Boto-kutxan bola beltz edo zuri bat sartzen zuten, horrela baietza edo ezetza adierazteko.

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak eginkizunik garrantzitsuenak dauzka:

- Batzordeek aztertu dituzten legeak eztabaidatu eta onesten ditu.
- Gobernuko lehendakaria hautatzen du, eta, zentsura-mozio baten kasuan, kargutik kentzen du.
- Gobernuaren lana kontrolatzen du, galderak, jabeldurak eta abar eginez.
- Nafarroako aurrekontu orokorrak onesten ditu.
- Gai publikoei buruzko adierazpen instituzionalak onesten ditu.
- Estatuarekiko edo beste autonomia erkidegoekiko hitzarmenak onesten ditu.

Nafarroako Parlamentuak bilkurarik egiten ez duen aldietan (Parlamentuko oporrak), Batzorde Iraunkor deritzon organo batek bermatzen du Legebiltzarraren iraunkortasuna eta bere eginkizunak betetzen segitzea. Batzorde horren lehendakaria Nafarroako Parlamentuko lehendakaria bera da, eta batzordekideek «boto ponderatu» deritzona daukate: hots, hainbeste parlamentari baldin badauzka nire parlamentu-taldeak, hainbeste balio du nire botoak.

Nafarroako Parlamentuan egiten den lan guztia publikoa da. Osoko Bilkurei eta Batzordeen bilkurei buruz aktak egiten dira, bilkura horiek grabatu eta erretransmititu egiten dira, eta interneten, irratiazen, egunkarien eta telebistaren bidez Nafarroako gizarte guztiari jakinarazten zaio zertaz eztabaidatu duten bilera horietan. Horrez gain, lege guztiak Nafarroako Aldizkari Ofizialean (NAO) eta Estatuako Aldizkari Ofizialean (EAO) argitaratzen dira. Horrek arrazoi sinple bat dauka: herritar guztiek nahitaez bete behar dituzte legeak, eta inork ezin du esan ez zituela lege horiek ezagutzen eta horregatik ez dituela bete.

Laburbildurik, Nafarroako Parlamentuak gehienbat lan egiten du legeen prestaketan eta Nafarroako Gobernuaren ekintzen gaineko kontrolean. Egiten duen guztia publikoa da, Nafarroako herritarrek jakin dezaten zein diren Parlamentuak onetsitako legeak, eta lege horiek bete ahal izan ditzaten.



Parlamentarien eserlekuak

Parlamentuko Osoko Bilkuretan, parlamentariak beren eserlekutik hitz egin eta bozkatzeko modua daukate. Dena den, beren mintzaldia luzea denean, mintzatokitik hitz egiten diete Osoko Bilkurara etorritako guztiei.

4. Ariketak

1. Talde txikian:

- Honako esaldi hau interpretatzen saia zaitezte: «Beharrezkoa da legearen soberania nahiago izatea herritarretako batena baino» (Aristoteles)
- Zoaz helbide honetara (<http://www.parlamento-navarra.es/euskara/amejoramiento.asp>) eta bertan bila ezazu Foru Hobetzearen 11. artikulua, Nafarroako Parlamentuan egiten diren lanak laburbildurik adierazten dituenak. Jarraian, idatz ezazu artikulua horretan aipatzen dena.
- Bila ezazu www.parlamento-navarra.es/indexeusk.asp webgunean zer Batzorde dauden Nafarroako Parlamentuan, eta haien izenak zeure lan-koadernoan kopia itzazu. Jarraian, Nafarroako Parlamentuko Batzordeek zer-nolako lana egiten duten esplikatu ezazu.
- Zoaz Nafarroako Parlamentuaren webgunera (<http://www.parlamento-navarra.es/indexeusk.asp>), eta «Osoko Bilkuren eta Batzordeen emanaldiak» atalean aukeratu ezazu Osoko Bilkura baten emanaldia ikustea. Entzun itzazu mintzaldiak gutxienez ere minutu batez.

4.1. Nafarroako Parlamentuko lehendakaritza

Nafarroako Parlamentuko lehendakaria da Nafarroako Parlamentua ordezkatzeko duen pertsona, bertako organo guztien lana bultzatu eta koordinatzen duena, Parlamentuko Osoko Bilkuraren zuzendaritza-lana egiten duena, eta abar.

Huteskundeak amaitu eta Nafarroako Parlamentuko 50 eserlekuak esleitzen direnean, Parlamentuaren lehenbiziko Osoko Bilkura egiten da. Lehenbiziko Osoko Bilkura horretan lehendakari gisa aritzeko, parlamentari adintsuena hautatzen da, eta hari laguntzeko bi parlamentari gazteenek idazkaritza-lanak egiten dituzte. Osoko Bilkura horren helburua da Nafarroako Parlamentuko lehendakaritza hautatzea, bai eta beste lau pertsona ere, zeinek, Nafarroako Parlamentuko lehendakariarekin batera, Nafarroako Parlamentuko Mahaia osatuko baitute.

Nafarroako Parlamentuko lehendakaritza hautatzeko, honako prozedura honi jarraitzen zaio:

- Nafarroako Parlamentuko lehendakari izan nahi duten parlamentariak beren nahia adierazten diote Osoko Bilkura zuzentzen duen parlamentariari (alegia, adintsuenari).
- Parlamentari adintsuenak, bere idazkarien laguntzarekin, Osoko Bilkurari jakinarazten dio zer hautagaitza aurkeztu diren.
- Bozketa egiten da. Parlamentariak bozketara deitzen zaie, beren izena esanez. Orduan, parlamentari bakoitza, hautagai baten izena idatzita daukan boto-txartela eskuan duela, parlamentari adintsuenak eta bere bi idazkariak zaindutako boto-kutxa bateraino hurbiltzen da, eta bertan sartzen du bere boto-txartela.
- Botoak zenbatzen dira. Nafarroako Parlamentuko lehendakari izendatuko da Nafarroako Parlamentuaren gehiengo osoa lortzen duen hautagaia (kideen erdiak gehi bat; hau da, 26).

Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkura
Nafarroako Parlamentuko lehendakariak ahotsa eman behar die parlamentari guztiei, gutxiengoaren ahotsa ere entzuna eta errespetatua izan dadin.



Nafarroako Parlamentuko lehendakariak



1979

Víctor Manuel Arbeloa



1983

Balbino Bados



1987

Javier Gómara



1991

Javier Otano



1995

Lola Eguren

- Inork ez badu gehiengo hori lortzen, Osoko Bilkura eteten da eta biharamu-
nean ekiten zaio berriro ere. Bigarren bozketa horretan parte hartu ahal
duten bakarrak dira lehenengo bozketan botorik gehien lortu duten bi hau-
tagaiak. Berdinketarik izanez gero, lehendakari izendatuko litzateke pertso-
na adintsuena.
- Nafarroako Parlamentuko bi lehendakariordeak eta bi idazkariak hauta-
tzen dira prozedura bera erabiliz.
- Lehendakariak, bi lehendakariordeak eta bi idazkariak osatzen dute Nafarro-
ako Parlamentuko Mahaia, zeinak baitauka Osoko Bilkuraren lehendakarit-
zaren eta zuzendaritzaren ardura. Nafarroako Parlamentuko lehendakarit-
zak aldarrikatzen du Nafarroako Parlamentua eratu dela, eta jarraian bilera
bukutzen du.

Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren bulegoa
Nafarroako Parlamentuko lehendakariak Parlamentua eta, beraz, Nafarroako Foru Komunitateko ordezkari politiko guztiak, ordezkatzan ditu. Parlamentuaren lehendakari gisa jardun eta Parlamentuaren zereginari bultzada emate aldera legeek ezartzen dizkioten eginkizunez gain, Nafarroako parlamentu-
talde ezberdinen artean bitartekotza-lana egin behar du.





1999

José Luis Castejón



2003

Rafael Gurrea



2007

Elena Torres



2011

Alberto Catalán



2015

Ainhoa Aznárez

Nafarroako Parlamentuko lehendakaria da, Gobernuko lehendakariarekin batera, Nafarroaren ordezkaritza handiena duen pertsona. Nafarroako Parlamentuan daude nafar guztiak hautaturiko gizon eta emakumeak: alderdi politiko ezberdinetakoak, irizpide ezberdinak dituztenak, arazoei eta horien konponbideei buruzko ikusmolde ezberdinak dituztenak... Nafarroako Parlamentuko lehendakaritzak zaindu behar du parlamentari guztiak aukera berberak izan ditzaten eta, guztiei entzun ondoren, gehiengoaren babesa daukaten ideiak demokratikoki nagusitu daitezzen. Tentuz egin beharreko lana da, baina, tamaina txikian, Nafarroako gizarte osoaren erakusgarri da: askotariko jendea, baina elkarrekin bizi ahal izateko erabakiak hartzeko gaitasuna daukana.

Laburbilduz esanda: hauteskunderen ondoren Nafarroako Parlamentuak eginiko lehenengo bileran, parlamentariak Nafarroako Parlamentuko lehendakaria aukeratzen dute. Lehendakariak dituen eginkizunen artean dago Parlamentuko bizitza antolatu eta bultzatzea; betiere, Nafarroako Parlamentuko Mahaia osatzen duten kideekin elkarlanean. Lehendakariak sinbolizatzen du Nafarroako gizarte osoak bizikidetasunean bizitzeko egiten duen lana, parlamentariak pentsaera ezberdinetako pertsonak baitira, proiektu beraren alde lanean dihardutenak: bidezko legeak egitea, Nafarroaren aurrerabidea ekarriko dutenak.

4.1. Ariketak

1. Talde txikian:

- Zuen gelako ordezkaria hautatzeko jarraitu behar duzuen edo jarraitu duzuen prozesuaz eztabaida ezazue. Prozesu hori idatziz azal ezazue, atal zenbakidunetan egituratuta.
- Taula batean, idatz itzazue bi prozesuok: bata, zuen klaseko ordezkaria aukeratzekoa, eta bestea, Nafarroako Parlamentuko lehendakaritza eskuratuko duen pertsona hautatzeko erabiltzen dena.
- Saskibaloï-partida batean bi epaile daude, jokalarien jarduna kontrolatzen dutenak. Nafarroako Parlamentuan lehendakari bat dago, eta hari laguntzeko, bi lehendakariorde eta bi idazkari. Idatz itzazu hiru arrazoi, Nafarroako Parlamentuko lehendakariak eginiko lana beharrezkoa dela erakusten dutenak.
- Idatz itzazu hiru arrazoi, gelako ordezkari bat egotea beharrezkoa dela erakusten dutenak.

5. LEGEGINTZA ESINKIZUNA

5. Legegintza eginkizuna

Nafarroako Parlamentuaren funtzioetako bat da legegintza-eginkizuna. Horregatik, parlamentarien zereginen artean dago legeak egitea. Lege bat da Nafarroako Parlamentuan aldeko botoa jaso duen arau bat, eta herritar guztiak behartuta daude arau hori betetzera. Legeak, eta oro har arauak, askotariko gaiak antolatzeaz arduratzen dira: ibilgailuen zirkulazioa errazteaz, hezkuntza bermatzeaz, herritar guztiei osasun-zerbitzua ahalbidetzeaz, denda bat jartzeko urratsak ezartzeaz, eta abar.

Lege bat egitea zeregin konplexua da. Horregatik, prozedura bat jarraitzen da, bermatzen duena parlamentariak legea aztertuko dutela eta, onetsi eta praktikan jarri aurretik, haren ondorioak aintzat hartuko direla.

Ekimena. Lege bat egitearen premiaz ohartarazteko ahalmena bost erakunde edo pertsona-taldek daukate. Ekimena Nafarroako Gobernuarengandik datorrenean, «foru lege proiektu» deitzen zaio. Ekimena, ordea, parlamentaria, parlamentu-taldeena, Nafarroako udalena edo herritarrena (gutxienez ere, zazpi mila) baldin bada, «foru lege proposamen» deitzen zaio.

Nafarroako Parlamentuan sartzea. Foru lege proiektua edo proposamena Nafarroako Parlamentura igortzen da. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak eta Eledunen Batzarrik aztertu egiten dute, eta erabakitzen dute aurrera jarraituko duen ala ez. Baiezkotan, proposaturiko testuaren berri ematen diete parlamentu-taldeei, egokiak iruditzen zaizkien zuzenketak aurkez ditzaten. Horretarako, hamabost eguneko epea daukate. Parlamentu-talde batek foru legearen osoko zuzenketa aurkezten badu, Parlamentuaren Osoko Bilkura batean egiten da horri buruzko eztabaida. Osoko zuzenketa onesten bada, proiektua bazter utziko da; zuzenketa ez bada onesten, proiektuaren testua kasuan kasuko Batzordera pasako da.

Kasuan kasuko Batzordean aztertzea. Foru lege proiektu edo proposamena, aurkezturiko zuzenketekin batera, Nafarroako Parlamentuko Batzorde baten eskuetara pasatzen da (hezkuntzaren esparrukoa bada, izen bereko Batzordean aztertuko da; osasunari buruzkoa izanez gero, beste Batzorde horretan, eta abar). Batzordeetan parlamentu-talde guztiek daukate ordezkaritza, eta haietan artikuluz artikuluz aztertzen da etorkizunean foru lege izanen den testua. Parlamentariak hobekuntzak proposatzen dituzte, aldaketak adosten dituzte, testu guztiaren aurkako botoa emanen dutela iragartzen dute, edo soilik testuaren zati baten aurkakoa... Batzordeak etorkizuneko foru lege horri buruzko irizpen bat prestatzen du.

Osoko Bilkura. Nafarroako Parlamentuko lehendakariak Osoko Bilkura baterako deia egiten du. Osoko Bilkura horretan, foru lege proiektu edo proposamena berriro eztabaidatzen da. Halaber, eztabaidatu eta bozkatzen dira foru legeko artikuluei aurkezturiko zuzenketak, eta onesten direnak txertatu egiten dira foru legearen behin betiko testuan.

Aldarrikapena/Berri-ematea. Legeak indarra hartzen du Nafarroako Aldizkari Ofizialean (NAO) eta Estatuko Aldizkari Ofizialean (EAO) argitaratu ondoren. Horrela, herritar guztiek dute modua legea ezagutu eta betetzeko. Interneteko zenbait webgunetan jarrita daude Nafarroako Parlamentuak onetsi dituen lege guztiak, eta komunikabideek ere lege horiei buruzko informazio osoa eskaintzen dute.



Nafarroako Aldizkari Ofiziala
 Nafarroako Parlamentuak onetsitako lege guztiak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen dira. NAOren paperezko aleak 2009ko uztailera arte bakarrik dago kaleratzen segitzeak osmoa; hortik aurrera, soilik on line bertsioa, aspalditik abian dagoena, egonen da. NAO guztiak kontsultatu ahal izateko webgunea honakoa da: http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Bestalde, EAO kontsultatzeko, zoaz beste helbide honetara: <http://www.boe.es/g/es/>



Pertsona ugariren eginkizuna da, lege bat onetsia izan ondoren, herritar guztiek lege hori bete dezaten ziurtatzea. Ezagunenak poliziak dira (herrietako udaltzainak, foruzainak...). Legearen urraketak nolako larritasuna duen, modu ezberdinean joka dezakete: besterik gabe legea bete beharraz ohartarazi, edo isuna jarri, edo are pertsona bat edo batzuk atxilotu ere. Dena den, soil-soilik epaileek erabaki dezakete egokiak ote diren poliziek ipinitako zigorrak edo eginiko atxiloketak. Bakarrik epaileek daukate ahalmena legea aplikatu eta interpretatzeko.

Azken batean, lege bat egitea zeregin konplexua da, parlamentariak kasuan kasuko Parlamentuan egiten dutena. Legeak herritarrek ezinbestez bete beharrekoak dira. Legeak interpretatu eta aplikatzeko arduradunak epaileak dira, beste pertsona askoren laguntza jasotzen dutenak.

5. Ariketak

LEGEGINTZA EGINKIZUNA

1. Nafarroako Parlamentuan lege bat egiteko prozesuari buruzko eskema hau kopiatu eta osatu:

1. Ekimena

- Proiektua:

- Proposamena:

2. Parlamentuan sartzea:

3. Batzordea:

4. Osoko Bilkura:

5. Aldarrikatzea/Argitaratzea:

2. Idatz itzazu, legeak izanen balira bezala, zure ikaskide guztiek bete beharreko hiruzpalau arau, ikasgelako adiskidetasun-giroa eta gizalegea bermatzeko beharrezkoak direnak.

3. Bisita itzazu NAO eta EAoren webguneak: aldizkari horiek kontsultatzeko aukera ematen dute.

5.1. Legeen garrantzia

Demagun sokasaltoan jolasten ari zarela. Bi pertsona sokari eragiten ari dira, eta gainerakoak ilaran jartzen dira, sokari eragiten ari zaizkion pertsonetako baten aldamean. Ilarako lehena sokaraino doa, jauzi egiten du, sokak ez dezan bere oina edo gorputza harrapa, eta agudo irteten da. Gauza bera egiten dute bigarrenak, hirugarrenak... harik eta guztiak pasa arte. Haietako batek huts egiten badu eta sokak bere gorputzarekin topo egiten badu, berari egokituko zaio sokari eragitea, eta lehenago sokari eragiten ari zitzaizkionetako bat ilarakoekin elkartzen da, soka saltatzeko. Horiexek dira jokoaren arauak. Sinpleak eta praktikoak. Baina zer gertatzen da norbaitek, soka saltatu eta oinarekin soka ukitzean, hura geratu eta ez badu soka biraraztera joan nahi?


Jokoek (sokasaltoak, futbolak, saskibaloiak, xakeak edo partxisak) arau batzuk dituzte, jokalariek errespetatu beharrekoak. Norbaitek arau horiek ez baditu errespetatzen —partxisean, adibidez, behar baino laukitxo gehiago mugitzen badu bere fitxa, aurkariarena harrapatzeko, edo futboleko eskuarekin gol bat sartzen badu—, tranpa egiten du, eta futbol-epaileren bat baldin badago, hark agian jokotik kanporatuko du eta ez dio gehiago parte hartzen utziko: txartel gorria.

Zertarako balio dute jokoaren arauak? Edo, hobeto esanda: araurik gabeko jokorik egon al daiteke? Eskubaloiari jokatzean, norbaitek baloiari oinarekin jotzen badio, horretarako apeta edukitzeagatik, zer gertatuko da? Futboleko behin eta berriro aurkariari zangotraba egiten baldin badiogu, pasa ez dadin, zer gertatuko da? Lasai-lasai jokatzen segituko genuke, ala jokoak modu txarrean amaituko litzateke?

Legeak ere arauak dira. Baina nahiz eta joko bateko arauak errespetatzera behar-turikoak joko horretan parte hartzen dutenak soilik diren, eta jokatzen ari direnean, ez beste inoiz, kontua da herritar guztiek errespetatu behar dituztela legeak, eta uneoro. Parlamentuetan onesten diren legeak nahitaez bete beharrekoak dira parlamentu horren eragin-eremua osatzen duen gizarte osoarentzat: Nafarroako Parlamentuan onesten direnak, Nafarroako gizartearentzat; Gorte Nagusietakoak, Espainiakoarentzat; Europar Batasuneko Parlamentukoak, Europar Batasunekoarentzat.

Gainera, ezin da aitzakiatzat esan legea ezagutzen ez denik, era horretan legea betetzeaz libratzeko eta ezeren errurik ez izateko. Horrelaxe gertatzen da jokoetan,

Zirkulazio-arauen errespetuak baizik ez du ahalbidetzen toki batetik bestera gutxieneko segurtasunez joatea.



eta horrelaxe, halaber, gizartean. Batek penaltia egiten badu, ezin da epailearengana joan eta hari esan zigorrik ez jartzeko, ez zekielako area barruan kontrako taldeko aurrelariari bultzatzea penalti zela. Auto-gidari batek bere autoa orduko 180 kilometroko lastertasunez badarama errepidean, eta polizia batek atxilotu nahi badu, auto-gidariak polizia horri eska al diezaioke joaten uzteko, ez zekielako lastertasun horretan gidatzea arau-haustea dela? Zer erantzunen dio poliziak? Lege bat ez eza-gutzeak ez du lege hori betetzetik salbuesten.

Lehenago esan dugu araurik gabe ezin dela jokorik egon. Ba, begira: legerik gabe, ezinezkoa litzateke gurea bezalako gizarte bat existitzea. Askotariko legeak daude: zirkulazioa antolatzeke, ibilgailuak eskuineko bidetik joatera behartzeko, eta errepidearen erdian aparkatzea debekatzeko, adibidez. Arauak eta legeak, medikuarengana joaten garenerako, eskolan egoteko, kalean eta gure etxean bertan errespetatuak izan gaitzela bermatzeko... Parlamentuek legeak eztabaidatu eta onetsi izan dituzte manifestazioen baldintzak ezartzeko (ezin dira edonon eta edozein ordutan egin), toki batetik bestera gutxieneko segurtasunez joan ahal izateko, botoa eman eta Parlamentua nahiz Gobernuua hautatu ahal izateko, lagun hurkoaren ondasunak errespetatzeko... Gure gizartearen bizitza guztia legeen bitartez araututa dago. Zenbait arlo ez ditu Parlamentuak arautu, baizik eta guk geuk: harategian, gure txandaren zain egoten gara, oinetakoak ez ditugu gure etxeko sofaren gainean jartzen...

Azken finean, funtsean badakigu ezen, arauak eta legeak errespetatuko ez bagenitu, gure bizitza okerragoa izango litzatekeela. Besteekiko harremanetan, arazo larriak izanen genituzke. «Oihaneko legea» deitu ohi zaionak, hau da, indartsuena gauza guztietan gainontzekoei gailentzeak, diktadura batera, eta ez beste ezertara, eramaten du. Legearen ordeztu pertsona bakar baten nahia nagusitzea izanen litzateke hori..

5.1. Ariketak

1. Honako hitz hauen esanahia bilatu eta zure hitzak erabiliz idatzi:

- Legea
- Oihaneko legea
- Parlamentua
- Diputatuen kongresua
- Epaila
- Europako Parlamentua

2. Talde txikian eztabaidatu eta landu:

- Konta eta idatz itzazue zuetako norbaitek bizi izandakoak diren hiru kasu zehatz, non taldeko pertsona baten nahia «lege» bihurtu den.
- Zer gertatuko litzateke pertsona bati lege-betetzerik eskatu behar ez izatea onartuko balitz, hark lege hori ez ezagutzeagatik? Idatzi bi kasu zehatz, eta azaldu nolakoak izanen liratekeen ondorioak.
- Adierazpen-askatasuna, elkarte-askatasuna, mugimendu-askatasuna... gure legeetan jasotako eskubideak dira. Baina eskubide horiek erabatekoak al dira? Pertsona batek zilegi al du nahi duena adieraztea? Non dago muga? Pertsona bat edonorekin elkar al daiteke? Edozertarako? Non dago muga?
- Aipa itzazue guztientzakoak diren bost arau, zuek errespetatu behar dituzuenak zuen etxean, kalean, futbol-partida batean, igerilekuan eta abar.

6. BOTEREA
KONTROLATZEKO
EGINKIZUNA

6. Boterea kontrolatzeko eginkizuna


Nafarroako Parlamentuak betetzen duen beste eginkizun bat da Nafarroako Gobernuak bere botereaz egiten duen erabilera kontrolatzea. Kontrol hau nagusiki bi modutan egiten du:

- Nafarroako Gobernuko lehendakaria hautatuz eta, kasua bada, kargutik kenduz.
- Galderak eta mozioak aurkeztuz, eta agerraldiak eskatuz, non Nafarroako Gobernuko kideak behartuta baitaude erantzunak eta beren ekintzei buruzko azalpenak ematera.

1. Nafarroako Gobernuko lehendakaria hautatzea.

Huteskundeak egin eta, handik gutxira, parlamentariak Nafarroako Gobernuko lehendakaria hautatzen dute, Osoko Bilkuran. Nafarroako Parlamentuko lehendakariak bilerak egiten ditu parlamentu-taldeetako eledunekin eta alderdi politikoetako ordezkariekin, haietako bakoitzak informa diezaion gobernu osatzeko zer aukera dituen: zenbat boto dauzkaten Nafarroako Parlamentuan. Nafarroako Parlamentuko lehendakariak uste duenean norbaitek behar adina boto dauzkala, Osoko Bilkurarako deia egiten du. Osoko Bilkura horretan, Gobernuko lehendakaritzarako hautagaiak programa bat aurkezten du; alegia, besteengandik behar dituen botoak jasoz gero aurrera eramane dituen neurrien multzo bat. Parlamentu-talde guztiek eztabaida egiten dute hautagaiak proposaturikoari buruz, eta nolako botoa emanen duten jakinarazten dute. Azkenean, bozketa egiten da. Hautagaiak gehiengo osoa lortzen badu (alegia, gutxienez ere 50 parlamentarietako 26k haren aldeko botoa ematea), Nafarroako Gobernuko lehendakari izendatua izanen da. Aitzitik, ez badu gehiengo hori lortzen, biharamunean bozketa errepikatuko da. Beste bozketa horretan, nahikoa da aldeko boto gehiago egotea kontrakoak baino, hautagaia lehendakari izendatua izateko. Gehiengo hori ere ez badu lortzen, Nafarroako Parlamentuko lehendakariak prozesu guztia errepikatu eta hautagaitza berriak aurkeztuko ditu. Hilabete bat igaro ondoren oraindik ez badute inor hautatu, foru huteskundeak errepikatzen dira eta Nafarroako Parlamentu berri bat hautatzen da.

Nafarroako lehendakari demokratikoak




Halaber, Nafarroako Parlamentuak zilegi du, Nafarroako Gobernuko lehendakaria jadanik hautatua dagoenean, ordeztua izan dadin proposatzea, honako kasu hauetan:

- Nafarroako Gobernuko lehendakariak kargua utzi baldin badu.
- Karguan jarduteko ezgaitasun fisiko bat baldin badu edo hil egin bada.
- Lehendakari gisa jarduteko ezgaitua izan baldin bada, epai baten bidez.
- Nafarroako Parlamentuak zentsura-mozio bat onesten badu, non Gobernuko lehendakariarako beste hautagai bat aurkezten den, eta beharrezkoak diren botoak lortzen baditu.
- Gobernuko lehendakariak Nafarroako Parlamentuari eskatzen badio konfiantza eman diezaiola postuan jarraitzeko, eta Nafarroako Parlamentuak konfiantza hori ukatzen dionean.

2. Galderak, mozioak, kontrolerako eztabaidak...

Bai Batzordeetan, non ordezkatura baitaude parlamentu-taldeak, bai Osoko Bilkuran, non esertzen baitira parlamentari guztiak, Gobernua behartuta dago parlamentariak aurkezten dituzten galderari edo jabeldurei erantzutera. Oro har, Batzordeetan aztertzen dira Batzorde horien espezializazioa diren gaiak: etxebizitza; osasuna; familia, gazteria, kirol eta gizarte gaiak; hezkuntza, eta abar. Informazio-eskariari erantzuten diete kontseilariak edo Nafarroako Gobernuko departamentu bakoitzean diharduten arduradunek. Osoko Bilkuran ere galderak aurkezten zaizkio Gobernuari. Erantzuteaz arduratzen dira kontseilariak edo Gobernuko lehendakaria bera. Gainera, urtero, Foru Komunitatearen egoerari buruzko Osoko Bilkura bat egiten da, eta bertan Nafarroako Gobernuko lehendakariak azken urtean egin denari buruzko laburpen bat aurkeztu eta hurrengorako proposatzen dituen ekintzarik garrantzitsuenak aipatzen ditu. Parlamentu-taldeetako eledunek beren kritika nahiz babesa eskaintzen diete azalpen horiei, askotariko argudioak erabiliz.

Laburbildurik esateko, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Foru Komunitateko politika ezarri eta administrazioa zuzentzen du. Nafarroako Parlamentuak kontrolatu egiten du Gobernuak egiten duen lana, eta, behar izanez gero, Gobernuko lehendakaria alda dezake.



Nafarroako Gobernuaren eraketa

18 urtez gorako nafarrek



alderdi edo koalizioei; besteak beste:
UPN, GEROA BAI, EH BILDU,
PODEMOS-AHAL DUGU, PSN-PSOE, IE, PP



Nafarroako Parlamentua



Gobernuko lehendakaria



Nafarroako Gobernua

HAUTATZEN DU



6. Ariketak

1. Bila itzazu www.navarra.es/home_eu webgunean, 'Nafarroako Gobernua' izeneko atalean, Nafarroako Gobernuko Departamentuen izenak.

-
2. Defini itzazu hitz hauek, hiztegi baten laguntzaz:

- Nafarroako Gobernuko lehendakaria:
- Gobernu-programa:
- Gehiengo osoa:
- Gehiengo soila:
- Zentsura-mozioa:


-
3. Talde txikian bilduta, pentsa ezazue zergatik den beharrezkoa Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren jarduna kontrolatzea. Aipa itzazue hiru arrazoi.

6.1. Parlamentu demokratiko bat

Franco 1975ean hil ostean hasitako trantsizio-prozesuaren ondoren, 1978ko abenduaren 6an erreferendum bitartez onetsi zen 1978ko Konstituzioa. Espainia diktadura izatetik herri demokratiko izatera pasa zen. Diktadurazko agintea duen herri batean, herritarrek ez dituzte beren agintariak hauteskunde askeen bitartez hautatzen. Urte askoan, Espainian ez zen hauteskunderik izan Gobernuak lehendakaria edo autonomia erkidegoetako lehendakariak hautatzeko. Geroztik, ordea, hauteskunde askeak daude, eta herritarrek modua daukate beren agintariak hautatzeko botoa emateko.

1978ko Konstituzioak Espainia demokratizatzea ahalbidetu zuen, eta horrekin batera, Estatu autonomia erkidegoetan banaturik antolatu zuen. Hamazazpi autonomia erkidego eratu ziren, eta haietako bakoitzean, herritarrek parlamentu bat hautatzen dute. Parlamentu horrek hautatuko du gero erkidego horretako gobernuak lehendakaria.

Erkidegoak eratu eta abiarazteko prozesua lurralde bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuz garatu zen. Nafarroari dagokionez, foru erakundeak demokratizatzeke dekretu bat argitaratu zen 1979ko urtarrilaren 26an. Urte horretako apirilean egin ziren Nafarroako lehenengo parlamentu demokratikoa eta Nafarroako Foru



1982ko Foru Hobetzea sortzeko prozesua


Diputazioa (Gobernua) osatzen zuten zazpi kideak hautatzeko hauteskondeak, lehenbizikoz. Hautaturiko pertsonak antolatu zituzten Nafarroak etorkizunean izanen zuen bizikidetzaz politikoaren oinarriak, gobernu zentralarekin ituna eginez:

- Aldizka (lau urtean behin), hauteskunde askeak egonen ziren, Nafarroak denboran zehar izanen zituen parlamentu demokratikoak hautatzeko.
- Parlamentuak hautatuko zuen Nafarroako Gobernuko lehendakaria, eta gobernuaren lana kontrolatuko zuen.
- Justizia Auzitegi Nagusi batek gizarte-auziak ebatziko zituen.
- Adostu zen zein gaitan duen eskumena (alegia, agintea) Nafarroan Nafarroako Gobernuak, eta zeintzuetan izanen den eskudun Estatua.
- Toki entitateei (udalak eta abar) beren boterea aitortu zitzaion, zeini bere mugapean.
- Nafarroaren ikurrak, hiriburua, hizkuntza ofizialak, lurraldea eta abar ezarri ziren.

1982ko martxoaren 8an, Nafarroako Foru Diputazioak eta Espainiako Gobernuak itundu eta izenpetu zuten Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren testua; alegia, goian aipaturiko gai guztiak aipatzen direnekoa. «Hobetzeari» buruzko legeak Nafarroako erakundeak demokratizatzea ahalbidetu zuen. Halaber ahalbidetu zuen, ikusi dugunez, Nafarroaren antzinako eskumenei eustea, zeinak orain dela mende askotakoak baitira, eta «Foru Araubide» izenez ezagutuak dira. Horrela, nolabaiteko jarraitasun historikoa eman ahal izan zitzaion Foru Araubideari, Estatuaren esparru demokratiko berriaren barruan.

Nafarroan indarrean jarraitu zuten berezitasunen artean dago zergak kobratzeko sistema. Nafarroako Parlamentuak zergak onetsi eta nafar herritarrek Nafarroako Gobernuari ordaintzen dizkiote. Eta Nafarroako Gobernuak, bere aldetik, urtero «kupo» bat ordaintzen dio gobernu zentralari, gobernu horrek Nafarroan ematen dituen zerbitzuen ordain gisa. Berezitasun hori eta beste batzuk ere mantendu izana nabarmentzearen, Nafarroari «Nafarroako Foru Komunitatea» deitu zitzaion.

Baina berezitasun hori edo besteren bat aitortzeak ezin du kaltetu Estatuaren batasun konstituzionala.



6.1. Ariketak

1. Aurkitu 1978ko Konstituzioa agertzen den webgune bat edo bi. Bereziki garrantzitsua iruditzen zaizun artikuluren bati buruzko iruzkina egin ezazu.

2. Gauza bera egin 1982ko Hobetzeari buruzko Legearekin.

3. Iker ezazu zer izen duten, gutxienez ere, Espainiako bost erkidegotako lehendakariak eta Espainiako Gobernuako lehendakariak.

4. Iker ezazu nola dagoen osatuta Europako Parlamentua.

7. EGINKIZUN EKONOMIKO- FINANTZARIOA

7. Eginkizun ekonomiko-finantzarioa

Comptos Ganbera

Erdi Aroko eraikin honetan dauka Comptos Ganberak bere egoitza. Comptos Ganberaren eginkizunetako bat da Nafarroako Parlamentuari gai ekonomiko-finantzarioetan aholku ematea. Horretarako, Nafarroako Parlamentuari txostenak bidaltzen dizkio, Parlamentuak eskatzen dizkion gaiei buruzkoak.

Nafarroako Parlamentuak daukan hirugarren eginkizun handia (horretan aritzen dira parlamentari guztiak, zenbait hilabetez) da eginkizun ekonomiko-finantzarioa. Parlamentuak urtero aztertu eta onetsi behar ditu Gobernuak aurkezten dituen Nafarroako aurrekontu orokorrak.


Guk guztiok, astea, hilabetea, urtea eta abar igaro ahal izateko, aurrekontu bat daukagu. Aurrekontua ez dago osatuta soil-soilik zure familiakoek ematen dizuten diruarekin, eta zuk diru horrekin egiten dituzun gastuekin. Horrek zuk daukazun beharizanen zati txiki bat besterik ez du asetzen. Horrez gain, funtsezkoak diren beste premia batzuk ere badaude, hala nola jatea, etxe batean bizitzea, arropa izatea, eskolarako materialak erostea, autoan edo bestelako ibilgailuetan bidaiatzea... Zuk daukazun beharizanei erantzuteko, bizi zaren etxean badaude zenbait pertsona, lan egiten dutenak eta beren ahaleginaren truke dirusarrerak lortzen dituztenak. Eta badaude gastu batzuk, dirusarrera horiei esker ordaintzen direnak eta zuk nahiz zurekin bizi direnek daukazuen premiei erantzuten dietenak. Horrela, ba, zure aurrekontuaren barrenean sartzen dira zuk daukazun beharizan guztiak asetzeko egiten diren gastu guztiak eta gastu horiek ordaindu ahal izateko dirusarrerak. Eta bi gauza horiek, dirusarrerak eta gastuak, elkarren arabera izan behar dute zurekin bizi diren pertsonen osaturiko familia-ingurunean.

Nafarroan, urteroko aurrekontu-proiektua egitea Nafarroako Gobernuaren ardurara da. Baina aurrekontu-proiektu hori aplikatu ahal izateko, onetsi egin behar da, eta Nafarroako Parlamentua da onesten duena. Nafarroako Parlamentuak dirusarrerak erabakitzen ditu, herritarrei eta enpresei kobratuko zaizkien zergen bitartez: PFEZa, BEZa, sozietateen gaineko zerga, erregaiaren gaineko tasak eta abar. Halaber erabakitzen du zertan gastatuko diren dirusarrera horiek: osasun-etxeak, ospitaleak, ikastetxeak, unibertsitatea eta errepideak mantendu eta hobetzea, industrialdeak sortzea, beka ematea eta abar.

Aurrekontuak dira gobernu-ekintzarako baliabide nagusia. Aurrekonturik gabe, dirurik gabe, gobernuak ezin dute gobernatu; horrelaxe ere, zure etxea, dirusarrerarik gabe, hondamen-egoera batean egonen litzateke. Horrenbestez, aurrekontuak onestean datza Nafarroako Parlamentuak erkidego honetako zuzendaritza politiko eta administratiboan daukan parte-hartzerik garrantzitsuenetako bat.

Normalean, Gobernuak urrian aurkezten du aurrekontu-proiektua. Nafarroako Parlamentuaren lana da aurrekontu-proiektua Ekonomia eta Ogasun Batzordean aztertzea, zuzenketen bitartez hobetzeak proposatzea, murrizketak egitea, gastuak kendu edo gehitzea... Azkenean, Osoko Bilkura da proiektua onetsi behar duena; ahal izanez gero, urtarrilaren bata baino lehenago; era horretan, urte berriarekin batera aurrekontu berria ere egon dadin. Osoko Bilkurak ez badu aurrekonturik onesten, aurreko urteko aurrekontuen indarraldia automatikoki luzatuta geratzen da: izan ere, erkidego batek nahiz Estatu batek ezin diote urte berri bati aurrekonturik gabe ekin.

Urtean zehar, Nafarroako Parlamentuak eskatzen dion bakoitzean, Gobernuak bere jarduera ekonomiko-





Ogasun kontseilaria aurrekontuak Nafarroako Parlamentuan aurkezteko unean
 Urtero, Ogasun kontseilariak Nafarroako Parlamentuan uzten du Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua, urtea hasi baino hilabete batzuk lehenago. Parlamentutalde guztiek proiektu hori aztertzen dute, eta egoki iruditzen zaizkien hobekuntza-proposamenak egiten dituzte. Espero izan ohi da aurrekontuak urtarilaren terako onetsita egotea.

ari buruzko azalpenak eman behar dizkio (zertan ari den gastatzen, edo zertan ez, eta zergatik). Urtea bukatzean, Nafarroako Parlamentuari urte horretako Kontu Orokorrak aurkeztu behar dizkio; horietan zerrendatzen dira izandako dirusarrera eta gastu guztiak. Era horretan, adierazten du aurreikusitakoak ziren dirusarrerak eta gastuak egiazki egin diren ala ez, eta zer zenbateko izan duten. Eta aparteko dirusarrera edo gasturik ere izan ote den. Nafarroako Parlamentuak foru lege baten bitartez onetsi aurretik Gobernuak aurkezturiko kontuak, Comptos Ganberak aztertu eta ikuskatzen ditu. Comptos Ganbera Nafarroako Parlamentuaren menpeko organo fiskalizatzaile bat da, Nafarroako erakundearen kontu publikoak ikertzen dituena. Comptos Ganberak txostena Nafarroako Parlamentuari igortzen dio, horren berri izan dezan.

Aurrekontuak komunikabideetan
 Aurrekontuen aurreproiektua aurkezten denetik bertatik, komunikabideek informazio zehatza eskaintzen dute Gobernuak egin nahi dituen gastuei eta aurreikusten dituen dirusarrere buruz. Baina Nafarroako Parlamentua da aurrekontu horiek onetsi, baztertu ala aldatu erabakitzen duena.



7. Ariketak

1. Bila ezazu hiztegi batean honakoen esanahia:

- superabita
- defizita
- zero aurrekontua

Talde txikian, iruzkina egizue eta gero idatz ezazue ea zuen gastu pertsonaletarako eduki ohi duzuen diruarekin...

- inoiz superabitik izan ote duzuen eta diruarekin zer egin duzuen.
- inoiz defizitik izan ote duzuen, eta zer irtenbide aurkitu zenuten.
- inoiz zero aurrekonturik izan ote duzuen.

2. Zoazte www.cfnavarra.es/camara.comptos/eus/index.asp webgunera eta Comptos Ganbera zer den azaltzen duen aurkezpena irakur eta dokumentu batean kopia ezazue.

3. Ikasten ari zareneko ikastetxea mantentzeko, Nafarroako Parlamentuak eta beste erakunde batzuek, hala nola zure herriko udalak, aurrekontuak onetsi behar dituzte. Pentsa ezazu:

Talde txikian, kalkula ezazu zenbat gastatzen den urtero zure ikastetxean:

- Telefonoan
- Berokuntzan
- Argitan
- Uretan
- Fotokopietan
- Idazkaritza-gastuetan
- Lan-irtenaldi eta ibilaldietan
- Kultur jardueretan: aldizkaria, solasaldiak, mintzaldiak eta abar.
- Ustekabekoetan



Adierazi zeretik hamarrera bitarteko eskalan: zenbateraino uste duzue jabetzen zaretela eta aprobeztatzen duzuela gizarteak urtero zuen hezkuntza doakoa izan dadin zuengan gastatzen duena?

0 5 10
gutxi nahikoa asko

7.1. Aspalditik datorren historia

Nafarroako Parlamentuaren edo Gorteen historia aspaldikoa da, orain dela mende askotakoa. Gorteak ez ziren une jakin batean sortu, baizik eta, Nafarroa bezalako erresuma txiki bateko botere-erakundeen artetik, pixkanaka-pixkanaka garrantzi gero eta handiagoa hartzen joan ziren.

Nafarroako erresuma IX. mendean zehar sortzen joan zen, gaur egun Nafarroa den lurraldearen ekialdeko Pirinioetatik Iruñerriraino. Erakundeak eratu ziren arabiarrekiko borroka eta itunez beteriko epe batean zehar, zeinean apurka hedatu baitzen erresuma osatzen duen lurraldea. Erakundeen artean, nabarmentzekoak dira erregea, botere gorena daukan buruzagi militarra; horretaz gain, berarekin dagoen eta aholkuak ematen dizkion gortea, eta azkenik, auzitegiak. Gorteetan ordezkatura daude nobleak, elizgizonak eta hiribilduetako biztanle batzuk: erresumako itzal, botere eta aberastasun handieneko pertsonak.



XVI. mendetik aurrera (zehazki, 1512. urteaz geroztik), Gaztelako erresumak Nafarroakoa konkistatu ondoren, Gaztelako erregea Nafarroakoa ere izatera pasa zen. Nafarroan egotea ezinezkoa zitzaionez, bera ordezkaturiko zuen pertsona bat izendatzen zuten: «erregeorde» deiturikoa. Gainerakoan, Nafarroako lege eta erakundeei eutsi zitzaien; horien artean, azpimarratzekoak dira Gorteak. Erresumako Gortek erregearen aurrean ordezkatzeko dituzte nafarren interesak. Beren bilkuretan, Koroak emandako arau guztiak aztertzen zituzten, ziurtatzearen arau horiek Nafarroako ohiturak eta legeak, foruak, errespetatzen zituztela. Hori egin eta gero, koroak eginko diru-eskaerak asetzen zituzten, koroak bere politika aurrera eraman ahal izan



Nafarroako Gorteen bilkura
 Garai bateko Nafarroako
 Gortean ordezkatuta zeuden
 nobleak (50 inguru bertarutzen
 ziren), elizgizonik boteretsuenak
 (13) eta Nafarroako Erresumako
 38 hiri edo hiribildutako
 ordezkariek.

zezan bai Nafarroan bai zeuzkan gainerako erresuma eta lurraldeetan. 1576an, Nafarroako Gorteen, lege baten bitartez, Foru Diputazioa eratu zuten, Gorteen batzorde iraunkor gisa, haiek erabakitakoaren betetzea zaintzeko, Gorteen bilerarik egiten ez zuten denbora-tarteetarako. Era horretan, Nafarroako foruak edo legeak uneoro bermatzen ziren.

XIX. mendean, lehenbiziko karlistadaren (1833-1839) ondoren, Nafarroako Gortek desagertu egin ziren. Nafarroak erresuma izateari utzi eta probintzia bihurtu zen. Hala eta guztiz ere, Diputazioak Nafarroako entitate administratzaile gisa iraun zuen, gobernu zentralak izendatutako gobernadorearekin batera. 1898an Foru Kontseilu Administratiboa eratu zen, Diputazioaren kontsulta- eta aholku-organoa, udal administrazioarekin eta finantza-arazoekin zerikusia zeukaten aferetarako.

Azkenik, 1979an berriro eratu zen Foru Parlamentua, «Nafarroako Gortek» ere deiturikoa. Parlamentu horrek Nafarroako Parlamenturako lehenengo hauteskundeak prestatu zituen, 1982an eginitakoak, eta haietan Parlamentu berri bat hautatu zen, aurreko garaiekin alderatuta ezaugarri ezberdin bat zeukana: Nafarroako Parlamentu berria Parlamentu demokratikoa zen, nafar guztiek hauteskunde askeetan aukeratua. Parlamentu demokratiko hori gehienez lau urtean behin berritzen da, eta berritze bakoitzari legegintzaldi ezberdin bat dagokio. Nafarroako Parlamentua edo Gortek, Nafarroako Gobernuarekin eta Auzitegi Nagusiarekin batera, Foru Komunitatearen erakunderik bereizgarrienetakoa da. Nafarroako Parlamentuaren zeregina da Nafarroako Gobernuko lehendakaritza hautatzea, gobernu-jarduna kontrolatzea, legeak onestea eta abar. Nafarroako autonomia-erkidegoa 1978ko Konstituzioaren balio demokratikoetan dago mamitua. Horrenbestez, 1982ko Hobetzearen Legeak, zeinak Nafarroako Parlamentuaren eginkizun berriak jasotzen baititu, foru araubidearen demokratizazioa gorpuztu zuen, bai eta Nafarroak Estatuarekiko harremanean dituen eta antzinako foruetan ezarriak zeuzkan zenbait berezitasunen mantentzea ere.

7.1. Ariketak

1. Nafarroako Gorteak, alegia, Nafarroako Parlamentua, demokratikoki lehenbizikoz 1979an hautaturiko erakundea da. Zerrendatu eta talde txikian idatz itzazue Parlamentua demokratikoki hautatua izateak zuen iritziz dituen hiru abantaila.

-
2. Honako hitz hauen esanahia bilatu:

- Foru
- Berezitasun
- Demokratizazio
- Legegintzaldi


-
3. Bila ezazu atlas historiko batean X. edo XI. mendeko Iruñeko erresuma. Marraztu edo fotokopiatu garai hartan Penintsula Iberikoan zeuden erresumak, eta zure dossierreko orri batean itsats itzazu. Mapari buruzko iruzkin labur bat egin ezazu.

8. ITXIERA-MAPA

8. Itxiera-mapa

Itxiera-mapak ahalbidetzen du ikasitako eduki garrantzitsuenak laburbiltzea eta elkarren artean goitik beherako norabidean erlazionatzea. Alderdi orokorrekin hasten da, eta zehatzenekin bukatzen. Halaber, aukera ematen dizuete zuen ukitu pertsonala emateko, kontzeptu-sarearen amaieran adibide batzuk ipiniz.

Esate baterako: Nafarroako Parlamentuko batzordeen kasuan, haien izen batzuk gehitu ahal dizkiozue.



9. EBALUAZIOA

9. Ebaluazioa

1. Osatu taula hau

| | NAFARROAKO PARLAMENTUA |
|---------------------|------------------------|
| NORK HAUTATZEN DUEN | |
| ZENBATEAN BEHIN | |
| EGINKIZUN NAGUSIAK | |

2. Osatu taula hau:

1. Ekimena

· Proiektua:

· Proposamena:

2. Parlamentuan sartzea:

3. Batzordea:

4. Osoko Bilkura:

5. Aldarrikatzea/Argitaratzea:

3. Galdera laburrak:

- Honako hau da Nafarroako Parlamentuko parlamentarien kopurua:
- Aipa itzazu lau alderdi edo koalizio Nafarroako Parlamentuan parlamentu-taldea osatu dutenak.
- Nork hautatzen du Nafarroako Gobernuko lehendakaria?

4. Nola bila daiteke Interneten Nafarroako Parlamentuari buruzko informazioa?

5. Honako hitz hauen esanahia azaldu:

- Demokrazia:
- Kontseilaria:
- Parlamentaria:

6. Testu honen iruzkina egin:

«Demokraziaren oinarria ordezkartza sistema da. Gure herrialdeko pertsona guztiek beren ideia eta proiektu guztiak gainerakoen aurrean zuzenean defendatu beharko balituzte, ez genuke sekula batzuk besteekin hitz egiten bukatuko. Premia horri konponbidea emateko, herritarrek hauteskunde batzuetan parte hartzen dute. Haietan, boto gehien lortzen dituzten pertsonak haiei botoa emandakoak ordezkatzeko dituzte eta haien interesak defendatzen dituzte. Baina, zer gertatzen da norbaitek halako bati botoa eman eta ordezkari horrek esandakoez bestelako gauzak egiten baditu? Erantzun errazena da ordezkari horri botoa eman zioten pertsonak, harenganako konfiantza galtzen badute, ez diotela gehiago botoa emanen. Hurrengo hauteskundeetan ez da hautaturik aterako. Hautaturik ateratzen bada, ordea, izanen da pertsona askok horrengan konfiantza dutelako eta haiek ordezkatzeko nahi dutelako».

- Zein da aurreko testuaren ideia nagusia?
- Defenda ezazu ideia nagusi hori hiru argumenturekin:

7. Lan-irtenaldiko nire portaera azaltzen dut

- Gauzei dagokienez:

- Pertsoneri dagokienez:

- Besterik:

8. Honakoak dira gai honetan argi geratu ez zaizkidan gaiak:

10. AUTOEBALUAZIOA. KOEBALUAZIOA

10. Autoebaluazioa

Erantzun ondorengo galderi. Unitate honetan ikasi duzunari buruzkoak dira.

1. Zer ikasi dut?

- Nafarroako Parlamentuari buruz

- Balore demokratikoei buruz

- Besterik:

2. Nola ikasi dut?

3. Zertarako balio izan dute eta balio izango dute ikasitakoek?

Nire lan-koadernoan baloratzen dut, eta nire iritziz honela dago:

Oso ongi

Ongi

Hala moduz

Gaizki

Arrazoiak:

Koebaluazioa

Ikasgela-taldeak egin beharreko ariketa

- Nola baloratzen ditugu Nafarroako Parlamentuari buruz eginiko ikerketa eta Ikasgela Birtualaren erabilera?
- Zein helburu lortu ditugu lan-irtenaldiarekin bitartez eta Nafarroako Parlamentuaren eginkizunak aztertuz?
- Zein zailtasun topatu ditugu?
- Zein izan dira gure indarguneak eta lan honetako onena?
- Zein proposamen eta iradokizun egin ditzakegu hura hobetzeko?



PARLAMENTO DE NAVARRA
NAFARROAKO PARLAMENTUA